

2023

# Jardueren memoria

eko  
lurra



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación  
Ecológica de Euskadi



**GAINBEGIRATU eta ONARTU**

**du:**

**Sin.: Arantza Eguzkiza**

**Euskadiko Nekazaritza eta  
Elikadura Ekologikoaren  
Kontseiluaren lehendakariak**

**Data:**

**2024/01/15**

## 1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA .....	3
1.	SARRERA .....	5
2.	ORGANIGRAMA 2023 .....	6
3.	KONTSEILUAREN JARDUNA 2023 .....	8
4.	KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARAUA.....	9
	<b>4.1. BARNE KOMUNIKAZIOA .....</b>	<b>9</b>
	<b>4.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI.....</b>	<b>11</b>
	4.2.1. Kanpainak .....	11
	4.2.3. Zuzeneko komunikazioa .....	16
	4.2.4. Hitzaldi eta mahai teknikoak .....	22
	4.2.5. Erakusketa ibiltaria .....	27
	4.2.6. Merchandising .....	28
	<b>4.3. EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN .....</b>	<b>29</b>
	<b>4.4. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN. ....</b>	<b>30</b>
	4.4.1. Hitzaldiak eta formakuntza.....	30
	4.4.2. Idiazabal JIB gazta ekologikoan sartzeko gida .....	32
	<b>4.5. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU. ....</b>	<b>33</b>
	4.5.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin.....	33
	EKOEUS azoka profesionalak Kanpoan.....	36
	4.5.2. EKOAZOKA txikiak.....	37
	4.5.3. Merkaturatze sarea .....	39
	<b>4.6. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU .....</b>	<b>40</b>
5.	ERREGISTRO KONTROL IKUSKARITZA ETA ZIURTAPEN PLana .....	41
	<b>5.1 ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO KONTSULTEI ARRETA.....</b>	<b>41</b>
	<b>5.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK.....</b>	<b>41</b>
	<b>5.3 KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA .....</b>	<b>41</b>
	2023an, Kontseiluko kalitate sistemaren bete beharreko baldintzak betetzen jarraitu izan du Kontseiluak, hala nola, barne auditoretza, zuzendaritzarekin egindako errebisioa eta ziurtapen komitearen batzarra .....	41

<b>5.4 FORMAKUNTZA</b> .....	41
<b>5.5 INTERECON PARTE HARTZEA</b> .....	42
<b>5.6 KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK</b> .....	42
5.6.1 Eragile ekologikoen errodaren banaketa 2023ko abenduaren 31n.....	42
5.6.2 2023an izandako izen-emateak eta bajak .....	44
6. 2023KO kontrol planaren Helburuak eta emaitzak.....	50
<b>Ziurtatutako produktuen analisiak:</b> .....	51

## 1. SARRERA

Kontseiluaren transformazio kulturalaren bigarren fasea finkatzeko urtea izan dela orokortu daiteke, 2021 urtearen bukaeran hasitako prozesuari jarraipena emanez. Prozesu desberdinen gida bat sortzea, proiektuen kudeaketa modu berriak aztertzea, kontrol planaren jarraipena zehatzago egitea, edota komunikazio arloko ekintzen plana egiteko metodologia berriak ezartzea izan dira, besteak beste, lortutako emaitzak.

2023ean, berriz ere berritu da Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena, Kontseiluaren jarduerak garatzea ahalbidetu duena, FOPE ekimenean planteatutako ekintza batzuk barne. Gainera, kalitate-araubideetan babestutako elikagaiak sustatzeko neurrietarako laguntza-deialdian sartu ahal izan gara. Laguntza horiek eragile berriek edo 2023an orientazio berria erregistratu dutenek ere eskuratu ahal izan dituzte. Eusko jaurlaritzatik ere hirugarren dirulaguntza bat lortu da Ekologikora trantsizioan lagunduko duten gida berriak egiteko, aipatzekoa Idiazabalekin elkarlanean egindakoa.

Kontrol eta ziurtapen lantaldean ez da gorabeherarik izan baina administraria iazko bajatik bueltatu da eta honekin laguntza gehiago izan da lantaldean. Eragileen errolda iaz baino pixka bat gehiago hasi da baina azken bi urteetako igoera aurreko urteetan izaten zena baino txikiagoa da. Orokorrean interes maila eta izen emate kopurua aurreko urteetako berdina den arren, azken 2 urteetan baja kopuruak nabarmen egin du gora. Honen arrazoi nagusia, aurreko urtean bezala, jarduera guztiz utzi duten eragileen kasua izan da. Elaborazio enpresen kasuan ere geldialdia eman dela izen emate kopuruan esan daiteke. Azalera ordea nabarmen egin du gora, batez ere abeltzain berriei esker.

Inoiz baino kontrol lan gehiago gehiago egin dira erroldak haunditzen jarraitu duelako. 2023ko emaitzei erreparatuta, emaitza analitikoak hobek izan dira, positibo edo kutsadura gutxiago antzeman dira. Baina orokorrean arau hauste gehiago detektatu dira eta arau hauste arrazoiak ere anitzagoak izan dira, orokorrean larritasun gutzikoak izan dira eta gehinetan ekoizpen lotearen deskalifikazioa nahikoa izan da. Jarraitu daiteke esaten emaitzak ikusita, Euskadin Nekazaritza Ekologikoa egiten diharduen nekazari, abeltzain, elaborazio eta merkaturatzaile enpresen profesionaltasuna eta ekoizpen eredu ekologikoarekiko kontzientzia maila, oso altuak izaten jarraitzen dutela.

Lehendabiziko aldiz eragileen ziurtagiri guztiak Europar Batasuneko datu base ofizial eta bateratuan (TRACES) egin eta publikatu dira

Komunikazio arloan ere lan taldea finkatu da. Kontseiluak egindako komunikazio eta sustapen-jardueren tipologiak aurreko urteetan ezarritako dinamikari eutsi dio. Baina aipagarriak izan dira izen emate berriak eta ekologikoan ari den eragile kopurua haunditzeko egindako lanak.

Merkaturatze sarea proiektua indartze aldera sistema informatikoaren bertsio hobetua garatu dela ere aipagarria da. Bestalde, HAZIrekin elkarlanean aurreko urtean egindako publizitate kanpainari “Ekologikoa, dena hobetzen” jarraipena eman zaio.


Kontseiluko kideei dagokionez, 2023 urtea propinazko urtea izan da, beraien legegintzaldia 2022 urtean bukatutzat eman zen arren, hauteskunde prozesuan izandako atzerapenen erruz lanean jarraitu behar izan dute. Lan honi esker, junta berriari egin beharreko informazio transmisioa, ondo planifikatzea eta prestatzea lortu da, eta aitzindariak izan dira prozesu honen lanketan.

## 2. ORGANIGRAMA 2023

### AGINTARITZA ESKUDUNA

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza: *Javier Plasencia Cuadrado*

#### KONTSEILUA



#### Gobernu organoak KONTSEILUA OSATZEN DUTEN KIDEAK:

Lehendakaria: ARANTZA EGUZKIZA BEOBIDE Lehendakariordea: AITOR OTEGI EPELDE

Ekoizleen azpierrordaren kide titularra:

Araba: JOSE MARIA MARTINEZ DE ANTOÑA (ZAIRA DEL RIOk ordezkatzen du, 2023an bajan)

Bizkaia: ROMAN BENGEO LARRAÑAGA (URDASPAL ALBERDI URIAK ordezkatzen du)

AINHOA ALAVA ALBIZUA (2023an bajan).

Elaboratzaile, inportatzaile eta merkaturatzaileen erroldako kide titularra:

JOSE RAMON ARRIETA ZIALZETA

MARIA LEIRE ALBISU URIARTE

IKER IGLESIAS EGUIA

Euskadiko kontsumitzaileen elkarten ordezkaria: ION ARIÑO. KOLDO LEZAMIZ gonbidatu gisa deitu da, Ekokontsumo Federazioaren ordezkari gisa.

Euskadiko Administrazio Orokorraren ordezkaria: RAUL PEREZ IRATXETA (Elikagaien Kalitateko Zuzendaria)  
Ordezkoa: ANA GUTIERREZ

Foru-aldundien ordezkariak:

Araba: M<sup>a</sup> ASUNCION QUINTANA URIARTE (Nekazaritza Zuzendaria). Ordezkoa: SILVIA CORCUERA.

Gipuzkoa: XABIER ARRUTI (Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaria). Ordezkoa: MIKEL AZPIRI

Bizkaia: ARANTZA ATUTXA (Nekazaritzako Zuzendari Orokorra) Ordezkoa: OIER DUNABEITIA

Idazkaria: XABIER LEJARZEGI (Kontseiluko Zuzendaria)

## Ziurtapen batzordea

Batzorde honetan kontrol eta ziurtapen lanetan interesa izan dezaketen alde guztiak ordezkatuta daude, kontsumitzaileak, ekoizleak, administrazioa eta adituak, denak maila berean, ez da bat gailentzen. Produktua ziurtatzeko jardueran Kontseiluaren inpartzialtasuna babesteko sortutako batzordea da, kontseiluaren lan esparru eta estrukturatik kanpo dago eta kideak zuzendaritza-taldearekiko independenteak dira:

**Administrazioa** (GV Direccion de Calidad Alimentaria): Ana Gutierrez; **Ziurtapenean adituak** (HAZI): Amaia Jauregi, Patricia de la Torre; **Kontsumitzaileak**: Ion Ariño (EKE), Koldo Lezamiz (Ekokontsumo Federazioa); **Elaboratzaileak**: Iker Iglesias (MIBA), Jose Ramon Arrieta (PIKUNIETA ARTZAIK), **Ekoizleak**: Ainhoa Alava (OIOLOBIDE), Urdaspal Alberdi (PATXIKOBASO), **Merkaturatzaileak**: Alberto Sanchez (EKOIZAN), Ion Uranga (UVESCO)

## ZUZENDARITZA

Xabier Lejarzegi Irazabal

## KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA

Ziurtapen teknikaria eta kalitate sistemaren arduraduna: Itxaso Cadenato.

Auditoreak: Irantzu Alegria, Amaia Lopez, Esti Martinez, Edurne Ortun, Mikel Guerque eta Haritz Mayora.

## KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN ARLOA

Teknikariak: Nagore Usabel eta Amaia Esnaola

## ADMINISTRAZIO ARLOA

Kristina Somozas eta Igor Petralanda

### 3. KONTSEILUAREN JARDUNA 2023

Urtean zehar hainbat bilera egin dira, batzuk telematikoak izaten jarraitu dute baina presentzialetara bueltatu gara. Kontseiluaren osoko bilkurak bi izan dira, honako gai-zerrenda hauekin:

#### 2023/03/20ko BILKURAREN GAI-ZERRENDA

1. *Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi .*
2. *Hauteskunde araudiaren eta barne arautegiaren onarpena.*
3. *2023-2027 lan hitzarmenaren berriztatzeaz informatu*
4. *2023 urteko lan egutegia aurkeztu.*
5. *2022 Jardueren memoria aurkeztu.*
6. *2022 urteko kontu ekonomikoak aurkeztu.*
7. *2023 urterako kontrol planaren ratioak aurkeztu.*
8. *2023 urterako komunikazio ekintzen laburpena.*
9. *Urteko kuoten eguneratze proposamena aztertu.*
10. *2023 urterako aurrekontuaren onarpena.*
11. *Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.*
12. *Galde-eskeak.*
13. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

#### 2023/07/11ko BILKURAREN GAI-ZERRENDA

14. *Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi .*
15. *Hauteskunde prozesuaren azken ordua.*
16. *Aurreko bileran hasitako eztabaidaren jarraipena, urteko kuoten eguneratzeari buruzkoa..*
17. *Salmenta puntuen inskripzioa.*
18. *Egoera ekonomikoaren balantzea ekainak 30ean.*
19. *FOPE egitasmoaren inguruan informatu.*
20. *Ekolurra eta Merkaturatze sarea proiektuen inguruan informazioa eman.*
21. *Kontseilu berriari transmisioa egiteko prozesuaren inguruan diseinatutako planteamenduz informatu*
22. *Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.*
23. *Galde-eskeak.*
24. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*



## 4. KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARUA

Kontseilutik burutzen diren sustapen eta komunikazio ekintzak 6 helburu nagusitan biltzen dira FOPE egitasmoa oinarri hartzen delarik; **BARNE KOMUNIKAZIOA, EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI GIZARTEAN, EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN, EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN, KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU ETA KOMUNIKABIDEekin HARREMANA SORTU ETA SENDOTU.**

### 4.1. BARNE KOMUNIKAZIOA

#### Hauteskundeak

2022an Kontseiluko zuzendaritza batzordea hautatzeko prozesua hasi zen. Kontseiluko Zuzendaritza Batzorde honek jada lau urteko agintaldia bete du, eta Kontseiluak hura berritzeko eta dagokion hauteskunde-prozesua deitzeko izapideari ekin zion.

Hauteskunde arauetan aldaketa garrantzitsuak egin behar izan dira, batik bat Emakume Nekazariaren



Estatutuak agindutakoa bete ahal izateko. Erakunde eta elkarte desberdinen aginte batzordeetan emakumeen presentzia bermatzeko asmoz, emakumeen presentzia gutxienez %40koa izan behar da.

2023ko uztailaren 3an hauteskunde batzordea eratu zen. Batzordea gobernuak, 3 aldundiek, nekazal sindikatu etako ordezkariak eta Kontseiluko zuzendariak osatzen dute. Jarraian uztailaren 10ean Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko errolda argitaratu zen eta irailaren 1ean hautagaitzak zabaltzeko epea ireki zen.

Irailaren 11an hautagaitzak aurkezteko epea amaitu zen eta Kontseilu berrirako hautagaien zerrenda osatu zen. Hauteskunde prozesuak ondoren ustekabeko etena izan zuen eta abendura arte hauteskunde prozesua etenda izan da. Beraz, Kontseilu berria 2024ko urte hasieran eratuko da.

## Zerbitzuen katalogoa

Kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinen katalogoa egokitu da; diagnostikoen zerbitzua, Ekolurra bereizgarria, egoitzaren erabilera, salmentarako euskarriak... Katalogo honen helburua kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eragileei ezagutaraztea eta eragile berriei zerbitzu berri hauek jakinaraztea izan da.



Deskargatu  
hemen  
zerbitzuen  
katalogoa

## Eragile berriei ongi etorri saioa

Ekainak 24ean ongi etorri saioa egin genuen azken urtean erregistratutako eragile ekologiko berriekin.

**2023an guztira 56** izan dira izena eman duten proiektu berriak. Ongi etorri saioaren bidez, eragile berriei Kontseiluaren egoitza erakutsi eta Kontseilutik ematen diren zerbitzu desberdinen berri eman zaie. Baita ere, Europako araudi ekologikoari buruzko oinarritzko nozioak.



## 4.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI

### 4.2.1. Kanpainak

*Komunikazio kanpainak FOPE egitasmoan A8.5 lan ildoaren baitan biltzen dira.*

#### Kanpaina orokorra



Aurten aurreko urteko kanpaina errepikatzeko erabakia hartu da kontsumitzaileen memorian inpaktatu eta elikagai ekologikoen irudia eta kanpaina ezaguna egiteko **“Ekologikoak gara, naturala delako”**. Erabaki honek aurrekontu guztia kanpainaren zabalkunderako erabiltzea ahalbidetu du. Kanpainak bi helburu izan ditu; alde batetik, ekoizlearengan jarri da arreta, ekologikoaren eredugarritasuna erakutsiz, eta aukera honen aldeko erabakia hartu ez dutenei, ikuspegi hau indartuz. Bestalde, erosleei ere zuzendu zaie, ekologikoaren aldeko aukera naturala dela erakutsiz, eguneroko praktikako eredu bidez.

Kanpaina hau kanal anitzekoa izan da eta presentzia nabarmena izan du: telebistan, irratan, mupie eta markesinetan eta marketing online-ean.

Kanpainaren emaitzei dagokienez, marketing digitalean 738.484 pertsonengan inpaktua izan zuen eta guztira 3.030.067 aldiz ikusi zen publizitatea 4,26ko frekuentziarekin. Sare sozialei dagokienez 19.152 pertsonen interakzioa lortu zen. Gainerakoetan zailagoa da emaitzak jasotzea; mupie, irrati eta telebista emisioetan.

#### “Txotx, sagardo ekologikoarekin kanpaina”

Txotx denboraldia aprobetxatuta urtarrilaren 20tik otsailaren 3ra **sagardo ekologikoa bultzatzeko kanpaina burutu zen sareetan**. Kanpainaren helburua ahalik eta pertsona gehienengana iristea izan zen eta sagardo ekologikoa kontsumitzeko aukera Euskal Autonomia Erkidegoan posible dela ere ikustaraztea.

Kanpaina ondorengo xede talde honetara bideratu zen; Erkidegoko 30 urtetik gorako pertsonak eta bizitza osasungarria, nekazaritza jasangarria, produktu naturalak, tokiko kontsumoa, ekologia, kirolak, nekazaritza ekologikoa, natura eta gastronomia kontzeptuetan interesa zutenengana. Kanpainak guztira 264.053 ikustaldi izan zituen eta guztira 170.976 pertsonarengana heldu zen. Gehienak 35-54 urte bitartekoa.

## Irailak 23, EBko Nekazaritza Ekologikoaren Eguna

Irailaren 23an, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Egunean **Idiazabal JI eta Euskal sagardoak bat egin zuten egunarekin eta eredu ekologikoaren alde egin zuten**; “ekologikoa, dena hobetzeko!”

Mezua sare sozial desberdinetatik zabaldu zen.



## “Ogi Ekologia, dena hobetzeko!”

Azaroaren 24an **ogi ekologikoa bultzatzeko kanpaina abian jarri zen “Ogi ekologikoa, irin ekologikoarekin egina”**. Ogiaren eskuorria eta panelaren sorkuntzarekin lotutako kanpaina izan da. Helburua Euskadin dauden 26 eragilen ekoizpena balioan jartzea izan da eta ogi ekologikoa eskuratzeko aukera ikustaraztea. Leloak dioen bezala ogi ekologikoaren ezaugarri handiena irin ekologikoarekin egindako ogia dela da. Guztira, 106.729 ikustaldi eta 60.429 lortu ziren.



### *“Abeltzaintza ekologikoa, dena hobetzeko”*

Durangoko azokan Biolur elkartearekin batera ekoiztutako “abeltzaintza ekologikoarekin dena hobetzen da” ikus-entzunezkoaren emanaldia aurkeztu genuen. Honen harira, ikus-entzunezkoaren laburmetraiaren publizitatea egin zen saretan abeltzaintza ekologikotik eratorriak diren elikagaiak kontsumitzeak duen garrantzia eta eredu ekologikoak jendarteari orohar egiten dion ekarpen positiboa helarazteko.

Kanpaina abenduaren 4tik 10era egin zen, eta, guztira, 97.969 bistaratze egin ziren, 49.783 pertsonarengan eraginez.



***“Gabonetan ere, ekologikoa dena hobetzeko”***

Gabon garaian aurreko urtean sortutako kanpainari jarraipena eman zitzaion inbertsio guztia kanpainaren zabalkundearen jarriz Gabonetan ere elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzea izanda kanpainaren asmoa **“Gabonetan ere ekologikoa, dena hobetzeko!”**. Kanpaina abenduaren 18tik 31ra burutzen zen. Lortutako emaitzak hauek izan ziren; kanpaina 404.998 pertsonara iritsi zen eta guztira 1.367.265 ikustaldi izan zituen.



### 4.2.3. Babesletzak:

*Babesletzak A8.7 ekintzak lagundu lan ildoaren barne biltzen dira.*

#### **Itzuliako 5.etapako sari banaketa**

Apirailaren 4ean Itzuliako 5. etapa Amorebieta-Etxanon ospatu zen. **Mendiko liderrari Elikagai ekologikoz osatutako saskia** eman zitzaion saritzat nekazaritza ekologikoan diharduen eta Juntako kide izan zen Urdaspal Alberdi eta bere familiaren eskutik.

#### **Aramotz mendi lasterketan babesletza**

Urriaren 8an, Amorebieta-Etxanoko Aramotz Mendi Taldeak, antolatutako **lasterketa babestu zen**. Parte hartutako kirolari irabazleei elikagai ekologikoz osatutako saskia eman zitzaien. Saskien banaketa Zornotzako, Errotik gaztandegi ekologikoko, Kepak egin zuen. Horrez gain, lasterketarako azpiegitura (karpa eta banderolak) eskaini zitzaizkien.





### **Euskadi.eus atarian Nekazaritza Ekologikoaren atalaren sorrera**

*Euskadi.eus atala A8.1 ekintzak lagundu lan ildoaren barne biltzen da.*

Euskadi.eus atalean “Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai industria” atalean **Nekazaritza ekologikoaren inguruko atala sortu** da. Helburua Nekazaritza ekologikoaren inguruko informazioa eta eredu ekologikoa instituzionalki ikustaraztea izan da.

EU | ES

BILATU

KONTAKTUA

NIRE KARPETA

euskadi.eus

◀ Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika

## Elikagaien Kalitatea



Ekonomiaren Garapen,  
Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Laguntzak

Zehapenak

Planak

Kontrola eta Egiaztapena

Kalitate Bereiztua

Nekazaritza Ekologikoa

Ekolozpen Integratua

Inuzurraren aurkako borroka

### Bilatuen



#### Upategiaren Liburu Elektronikoa

Sarrera eta irteera erregistroak kontrolatzeko aplikazio informatikoa



#### Nekazaritza Ekologikoa

Sintetizko produktu kimikoak baztertzen dituen nekazaritza-tekniken multzoa



#### Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroa

Nekazaritza eta Elikagaien Produktuen

### 4.2.3. Zuzeneko komunikazioa

#### **Dibulgaziorako materiala**


*Dibulgazio materialak FOPE egitasmoan A8.3 lan ildoaren baitan biltzen dira.*

#### **Ikus-entzunezko 14 bideo erakusketarako. Reels formatuetara egokituta.**

“Ekologikoa, Dena Hobetzeko” erakusketa ikus-entzunezko bideoekin osatu nahi izan da eredu ekologikoaren inguruko informazioa irudiz laguntzeko. Horregatik panel bakoitzaren edukian oinarrituta 1-2 minutuko 14 bideo sortu dira. Ikus-entzunezkoetan ondorengo edukia jaso da; esneki, haragi, ogi, ardo, olio, barazki eta arrautza elikagaien inguruko informazioa, nekazaritza ekologikoak EGJ helburuekin duen



lotura, nekazaritza ekologikoak ingurumenari egiten dion ekarpena, elikagai ekologikoak ekoizterakoan kontuan hartzen diren printzipioak eta elikagai ekologikoak identifikatzen ikasteko azalpena. Bideoak bi hizkuntzetan egin dira, euskeraz eta gazteleraz. Bideo hauek texto eta musikarik gabe ere berregin dira reel moduan erabiltzeko.



### Porrutxo bideoaren eguneraketa.

10-16 urteko gazteei zuzenduta dagoen **Porrutxo bideoa** eguneratu dugu. Bideo honetan Nekazaritza ekologikoaren bereizitasunak, baldintzak eta abantaiak azaltzen dira eta beste batzuen artean **Lurzorua egitarauaren barnean erabiltzeko** oso aproposa da. 2009 urtean Baleuko enpresak burutu zuen bideoa eguneratzeko beharra ikusi da, batez ere Eneek logotipoa Ekolurra logotipoarekin ordezkatzeko beharra. Garrantzitsua da bideo guztian zehar ikusten eta barneratzen den logotipoa merkatuan eta etiketatik aurkituko dena izatea.



**Ogiaren eskuorria** Aurten 2021 eta 2022an sortu ziren elikagai ekologiko bakoitzaren ezaugarrien eskuorrietara ogi ekologikoaren eskuorria gehitu da. Alde batetik, eragileek bere produktuaren inguruko argudioak eskura izateko eta bestetik kontsumitzailea informatzeko.



**Erakusketa ibiltaria handitzen: Ogiaren panela eta Garapen Jasangarriko Helburuen panela**

Nekazaritza ekologikoaren erakusketa ibiltariari ogiaren informazioa jasotzen duen panela eta Garapen Jasangarrien Helburuen (GJH) panela gehitu zaizkio. Helburua erakusketan ahalik eta elikagai familia gehien presentzia bermatzea da, nekazaritza ekologikoan ziurtatuta dauden elikagaien aniztasuna ikustarazteko.



**Bizkaia eta Gipuzkoako ortuaren plangintza posterraren eguneraketa**

Biolur elkartearekin eta Gipuzkoa eta Bizkaiko baratzezain talde batekin landuta egin da. Zaharra eguneratzeko behar izana zegoen. Bertan jasotako laboreak banaka-banaka aztertu eta datuak eguneratu dira. Lana burutzeko Biolurreko teknikariarekin bi bilera egin ziren eta eragileekin hartu emana izan zen lana buru bitartean datuak elkar banatzeko.

**Lurzorua – Irakaslearen gidaliburua**

Irakasleei Lurzorua egitarauan aurretik ikasleekin irteera prestatzeko emailaz bidaltzen zaien gidaliburuaren eguneraketa egin da. Ikasleek egunean zehar erabiltzen duten gidaren irudigintza berdina mantendu da eguneraketarako.



## Lurzorua - egitaraua

*Lurzorua hezkuntza egitaraua, erakusketara bisitaldiak eta ate irekiak FOPE egitasmoaren baita A8.8 lan ildoaren baitan jasota daude.*

Informatua egon daiteken kontsumitzaile kolektiboen artean **eskola-komunitatea nabarmentzen da; etorkizuneko kontsumitzaile gisa** duten garrantziagatik, eskola-munduan elikadura osasungarri eta arduratsuarekiko dagoen sentsibilitatea handitzen doalako eta irakasleek ekoizpen ekologikoari buruz duten prestakuntza eta informazio eskasagatik.

Kontseiluaren helburuen artean hezkuntza-komunitatean presente dago, ekoizpen ekologikoaren hedapenean eta sustapenean erreferentziatzeko erakunde gisa, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa propio baten bidez, ikastetxeei tresna aplikagarri eta erabilgarri bat eskaintzeko, ikastetxeko curriculumean sartutako gai horiek lantzeko.

**2023. urtean guztira LURZORUA egitarauaren 20 saio burutu ziren;** udaberrian 12 eta udazken-neguan 8. Guztira Euskadiko **13 ikastetxeetako 500 ikaslek** parte hartu zuten.

Programa Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Amorebieta-Etxanoko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan dago, honengaitik Amorebietako ikastetxeek dute parte hartzeko lehentasuna.



### ***Eskola taldeen bisitaldiak kontseilura***

Lurzorua egitarauan parte hartzen duten taldetaz gain, 6 eskola taldek Jauregibarria baserrian kokatuta dagoen **Kontseiluaren egoitza eta erakusketa iraunkorra bisitatzeko aukera** izan zuten. Kontseiluko teknikari baten eskutik, guztira 150 ikasle inguruk Ekoizpen eta elikadura Ekologikoaren berezitasunak ezagutu zituzten.



### ***Talde interesdunei bisitak egiteko eskeintza***

Ikasturte hasieran, irailean, **kontsumoa, elikadura eta nekazaritza sektorearekin lotutako talde eta erakunde desberdinei zuzendutako eskeintza** zabaldu zen. Euskadiko Ekoizpen Ekologikoaren eta elikagai ekologikoen ezagutza eta informazioa sustatzeko eta aldi berean, produktu horiek ekoizteko, transformatzeko eta lantzeko prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiz. Honetan ibilaldi gidatuen aukera eskeini zen. Ibilaldi gidatua sei taldek eskatu zuten. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren kontseiluan kokatuta dagoen erakusketa finkoa ezagutu ondoren, eredu ekologikoan lan egiten duten baserriarrei bisita egin zitzairen. Baserriaren bisitarako bi aukera eman ziren, Errotik baserria (behiak eta gaztagintza) eta Ibarra baserria (barazkigintza). Guztira **6 talde eta 150 pertsona** inguru parte hartu zuten.



- **Zunzunegi Institutua** (2023/02/06). Erakusketa iraunkorrera bisitaldia. 35 ikasle
- **GARAPEN agentzia** (2023/02/07) Nekazaritza ikastaroa. Erakusketa eta Errotik gaztandegira bisitaldia. 24 ikasle
- **Tolosako Lanbide Heziketa** (2023/04/18). Erakusketa eta Errotik gaztandegira bisitaldia. 25 ikasle
- **HHI Barakaldo** (2023/06/14). Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Barakaldoko taldea. Erakusketa eta Ibarra baserriko baratzeria bisitaldia. 42 ikasle
- **Asafes Elkartea** (Gasteiz) (2023/06/22) Erakusketa eta Ibarra baserriko baratzeria bisitaldia. 27 parte hartzaile
- **Lanbideko taldea – Enbak** antolatutako barazkigintza ikastaroaren barnean (2023/09/26). 6 parte hartzaile.

#### 4.2.4. Hitzaldi eta mahai teknikoak

*Hitzaldiak eta mahai teknikoak FOPE egitasmoan A8.4 lan ildoan jasota daude.*

#### ***Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorea dinamizatzeko lan taldea***

**Kontseiluak**, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzuak eta Urremendi Landa Garapenerako Elkarreak, **eskualdeko nekazaritza-jarduera dinamizatzeko**, Urdaibaiko eta Biosfera Erreserbaren balioekin bat etorriz, 2020ean aktibatu **zuen lan taldean parte hartu du hasieratik Hazi, Jangurie, Lorra eta Neikerrekin batera**.

2021ean Busturialdea-Urdaibaiko nekazaritzako elikagaien estrategia 2030 onartu zen, nekazaritzako elikagaien sektore berritzaile, gaztetu eta lurraldera errotu baterantz aurrera egiteko bide gisa ulertuta. Ondorioz, lehen sektoreari laguntza emateko inplikaturik dauden erakundeek Busturialdea-Urdaibain 2023-2024 aldirako tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea dinamizatzeko Ekintza Plana abian jartzea adostu zen.

Bost arlotan dago egituratuta, eta horien artean nabarmentzekoak dira lurra eskuratzea eta nekazaritzako eragile berriak sartzeari, nekazaritza sektorearen profesionalizazioa edo tokiko, ekologiko eta sasoiko produktuen banaketa.

Horretarako, aurrez, hainbat sentsibilizazio eta komunikazio-ekintza aktibatu dira, Busturialdeko herritarrei hurbileko produktua kontsumitzeari garrantziari buruzko mezua bidaltzeko.

#### ***Nekazaritza ekologikoa etorkizuneko apustu gisa I+G Nekazaritza jardunaldietan***

Ekainaren 8an La Ser Gasteiz irratiak antolatutako I+G Agro-ren II. Edizioan parte hartu genuen Bionekazaritza eta Natuaraba elkarteko kideekin batera. Jardunaldia “nekazaritzako elikagaien sektoreko ikerketa eta garapenei” buruz hitz egiteko ekitaldia izan zen. Kontseiluaren parte hartzea “nekazaritza ekologikoa, etorkizun iraunkorrerako gakoa” izenburuaren baitan izan zen.



Alde batetik, Asier Fernandez de Jauregui sektore ekologikoan funtzionatzen ari diren hainbat teknologia azaldu zituen; adibidez, kamerekin autogidatutako laborariak edo Nofence hesi birtualen lepokoak. Bestetik, Oscar

Lopez de La Callek Agroekologia aurkeztuko du, ingurumen, gizarte eta ekonomia arazo globalen aurrean tresna gisa. Izan ere, klima-aldaketa arintzeko tresna da, ingurumena zainduz eta birsortuz. Azkenik, Zaira del Riók Nekazaritza ekologikora bilakaera egiteko ekoiztu diren gidak aurkeztu zituen.

Saioaren emanaldiaren aurretik 400 insertsioa izan ziren eta saioan guztira 70 bisitari eta 836 erreproduzio izan zituen.

### **Ekolurra bereizgarriaren aurkezpena Kataluniako Unió de Pagesos taldeari.**

Katalunian Nekazaritzako elikagaien ekoizpen ekologikoaren sektoreak lortu nahi du Katalunian ekoiztutako edo landutako elikagai ekologikoak bereizgarri batekin bereizi ahal izatea, inportatutako elikagai ekologikoetatik bereizteko

Marko horretan Euskadiko EKOLURRA bereizgarria ezagutzeko hitzaldia eman zuen Xabier Lejarzegi, kontseiluko zuzendariak (sorrera, jarraitutako irizpideak, arauditegia, bilakaera... ).



**SEAE** **UNIO DE PAGESOS** **ASOBIO** **l'era**

**Per a què un segell ecològic català?**  
*Impulsem el segell ecològic català, contribuïm en la relocalització del sistema alimentari.*

**Data:** 14 de desembre de 2023  
**Horari:** de 18h a 20h  
**Lloc:** Auditori de Pati Manning (c/Montalegre, 7, Barcelona)

**Programa:**

- 18h Benvinguda a càrrec de Carlos Garcia Oquillas, Coordinació de l'Àrea d'Espais Naturals i Infraestructura Verda, Diputació de Barcelona.
- 18:10h Presentació de l'Aliança Fulla Verda i de la jornada.
- 18:20h Requeriments i exemples per identificar un producte local: l'exemple d'Ekolurra. Xabier Lejarzegi, Coordinador del Consell d'Agricultura i Alimentació Ecològica d'Euskadi/Ekolurra
- 18:40h Per què cal un segell ecològic català? Ferran Berenguer, responsable nacional d'agricultura i ramaderia ecològica d'Unió de Pagesos i José Maria Hervás, representant de Sectorial de Cooperatives de Consumidores Agroecològiques
- 18:50h El treball efectuat pel Departament d'Acció Climàtica Alimentació i Agenda Rural. Isidre Martínez, responsable de la producció agroalimentària ecològica, DACC.
- 19:10h Taula rodona i debat: Situació del sector ecològic català. David Torrelles, president del CCPAE i les persones de les intervencions prèvies.
- 19:45h Tast de producte ecològic de proximitat
- 20:00h Fi de la jornada

Amb el suport de: **Diputació Barcelona**

## Hitzaldiak

Kontseiluko sustapen arloko teknikariak emandako hitzaldiak:

- **Arkautiko Nekazaritza Eskola (2023/01/17).** 2. mailako paisajismo eta agroekologiako ikasleak. 25 ikasle
- **Helduen Hezkuntza Iraunkor taldea (HHE) Santurtzi – (2023/04/20).** 22 ikasle
- **Ordiziako Goierri Eskola (2023/10/30).** Bi hitzaldi eman ziren. Batxillergoko eta Goi mailako eta erdi mailako zikloetako ikasleek parte hartu zuten. 190 ikasle
- **Biocultura Bilbao (2023/10/07).** INTERECO rekin elkarlanean Elikagai ekologikoen etiketatu tailerra burutu zen BEC en ospatu zen Biocultura Bilbaon. 25 pertsona
- **Bilboko Goi Mailako Hostalaritza Eskolan -Artxanda (2023/12/19).** Hitzaldiaren ondoren elikagai ekologiko eta konbentzionalekin degustazioa egin zen. 27 ikasle





**"Nekazaritza ekologiko jasangarrirako negozio eredu berriak" topaketa Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean.**


Ekainaren 15ean "Nekazaritza ekologiko jasangarrirako negozio eredu berriak" izeneko topaketa izan zen Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean.

Ekitaldi honen helburua Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzaturako eta Deusto Business School-eko ikertzaile talde batek garatutako NERSO (Nuevos Modelos de Negocio para un Entorno Rural Sostenible) proiektuaren emaitzen zati bat ezagutaraztea eta haietaz eztabaidatzea izan zen. Konkretuki, nekazaritza ekologikoaren jasangarritasun integral handiagoa ekarriko duten aukera estrategikoak identifikatzea izan zuen helburu. Kontseiluak Nekazaritza ekologikoaren egungo testuinguruaren erradiografia eman zuen eta Arantza Eguskizak emakumeak nekazaritza ekologikoan duen paperaren inguruan hitz egin zuen.



## **“Abeltzaintza ekologikoa, dena hobetzeko” laburmetraiaren aurkezpena Durangoko Azokan.**

Durangoko azokako 58.edizioan parte hartu zen Biolurreko kideekin batera “Abeltzaintza ekologikoa dena hobetzeko” laburrarekin. Helburua abeltzaintza ekologikoak ingurumenean, zein animalien ongizatean dituen onurak ikustaraztea eta abeltzaintza ekologikotik eratorritako elikagaietan ere onura hauek islatzen direla jakinaraztea izan zen. Abeltzaintza ekologikoa abeltzaintzari oro har egozten zaizkion ingurumen-kalteetatik libre baitago.



#### 4.2.5. Erakusketa ibiltaria

*Komunikazio kanpainak FOPE egitasmoaren barruan A8.5 lan ildoaren baitan daude.*

“Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” kanpainaren baitan lelo hori duen erakusketa mugitzen da. Erakusketa hainbat herritan ibili da, bai aire zabaleko formatuan, itsas edukiontzi batetan, bai areto barruko formatuan.

Erakusketa Kontseiluak egiten duen Euskadiko elikagai ekologikoen sustapenaren barruan kokatzen da eta haren helburua jendarteari ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegi osoa helaraztea da; eskaintzen dituen abantailak eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak azaltzea. Hortaz, ingurumenarekin nolabaiteko kezka duen edo tokiko elikagai ekologikoekiko interesa duen edonori informazio ulergarria helaraztea da xede nagusia.



Paneletan ekoizpen ekologikoari buruzko hainbat datu eta informazio zabaldutzen dira; elikagai ekologikoek dituzten onurak eta eredia ekologikoak abeltzaintzan dituen onurak ere; izan ere, ez dago animalien ongizate maila altuagoa duen abeltzaintza sistemarik, eta berori da karbono aztarna txikiena uzten duen ekoizpen sistema.

2023an erakusketa bideo motz batzuen bidez osatu da. Guztira 14 bideo motz egin diran euskeraz eta gazteleraz. Lehen QR bidez paneletako informazioa sakontzeko irakurtzeko informazioa ematen zen eta orain bideo motzen bidez era atseginagoa izango da.

Urtean zehar leku hauetan egon da erakusketa:

2023/09/05	Elorrixoko ferixa Nagusikoan – Itsas edukiontzian
2023/09/22	Asteklimaren barruan – Murgiako liburutegian
2023/11/15	Gamarrako Hostalaritza Eskola (Gasteiz)
2023/12/11	Bilboko Goi Mailako Hostalaritza Eskola (Artxanda-Bilbo)

#### 4.2.6. Merchandising

Zuzeneko salmentarako euskarriak ekoiztu dira: heldulekua eta heldulekurik gabeko paperezko poltsak, eta poltsa konpostagarriak.

Bestalde, telazko poltsa berriak ekoiztu dira, lehendik zeuden bi koloretan eta hirugarren kolore batean.

Azkenik, merchandising berri bat ekoiztu dugu, amantala.




### 4.3. EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN

Bereizgarri berriaren sorrera jasota dago FOPE egitasmoko A4.1 lan ildoan.

#### Ekolurra

Azaroaren hasieran Kanpaina orokorraren mezuarekin bat eginez **Ekolurra altak bultzatzeko barne kanpaina** abian jarri zen. Helburua Ekolurra **altak bultzatzea** eta Ekolurraren inguruan **informazioa ematea** izan zen. Kontseiluko kideen mezu pertsonalizatuaren bidez “Zergatik bat egin ekolurra proiektuarekin?” galderari erantzuten zion dokumentua bidali zen eta sareetatik Ekolurra bereizgarriaren ekarpenak zabaldu ziren.



**“Tokiko nekazaritza-ekoizpen ekologikoa bultzatu nahi dugu, eta bertako ekoizleei eta nekazaritza ekologikoa ekoiztutako elikagaiak berezko duten balioa eman”.**

Arantza Eguskiza, sagardogilea eta Kontseiluko lehendakaria 2018-2023

**“Ekolurra bertako produktu ekologikoen aldeko apustua da, tokiko merkatuari zuzendua merkatutzeko zirkuitu laburretara egokitua”.**

Urdaspal Alberdi, baratzezaina, eta Jose Ramon Arrieta, artzaina. Juntakidea 2018-2023.

**“Ekolurrak lehen begiradan elikagaia bertako ekologikoa dela identifikatzen lagunduko dio kontsumitzaileari”.**

Aitor Otegi, orlezaia eta juntakidea 2018-2023

**“Ekolurrak azken hamarkadetan bertoko nekazal ekoizpen ekologikoa, ekologia eta kalitatearekiko erakutsi duen konpromisoa jasotzen du”.**

Xabier Lejarzegi, Kontseiluko zuzendaria.

**¿CÓMO PRESENTAR EL ALIMENTO ECOLÓGICO EKOLURRA?**

Ekolurra es el alimento ecológico de aquí, inventado en el territorio que cuenta con un sello ecológico propio de la Unión Europea certificado por el Consejo y, además, recoge los valores complementarios que dan al alimento carácter propio.

Estos valores complementarios se han recogido como requisitos regulados en la normativa Ekolurra. Su presencia y análisis ha sido realizada por los operadores inscritos en el Registro, con personal agrícola, ganadero y pesquero con amplia experiencia en el mundo productivo ecológico, en los terrenos tradicionales y en la producción de alimentos de alta calidad.

**EMEKU Ekolurra**

Sareak el Consejo de Agricultura y Alimentación. En el caso de Ekolurra se organiza en el Consejo de Ekolurra, un organismo oficial, creado mediante su autonomía en Euzkadi, CNIEK. Al referirse al Consejo ecológico en el caso de la denominación oficial CNIEK se refiere a Ekolurra, como denominación reconocida por el Consejo.

**MODELO ECOLÓGICO DE PRODUCCIÓN DE BASE CERTIFICADA**

La base del sistema Ekolurra es, por supuesto, la normativa del etiquetado de la agricultura ecológica de la Unión Europea (UE). Aquí se recogen los requisitos mínimos en la comercialización de productos para el uso del logo de la Unión Europea. Minimoa (que debe cumplir todo) son plantaciones, cultivo, sistemas de ordeño, sistemas de gestión de plagas, sistemas obligatorios y el sistema de certificación que se debe cumplir para dar todo lo garantizado por el consumidor.

En Euzkadi hay muchas realidades diferentes y es necesario adaptar la normativa de la UE a la nuestra. A partir de esta normativa se definen algunos parámetros de calidad en el sistema productivo.

**LA TERRITORIALIDAD EN EL CENTRO**

La Comunidad Autónoma del País Vasco es el territorio en el que más CNIEK. También se comercializa Ekolurra como sistema propio de producción ecológica entre las personas agricultoras y ganaderas.

**“Queremos impulsar la producción agrícola ecológica local y dar a los y las productores locales y a los alimentos producidos en la agricultura ecológica el valor que los su propio”.**

Arantza Eguskiza, sagardogilea eta juntakidea 2018-2023

**“Los productos locales juegan un papel fundamental en Ekolurra, por eso es importante no dejar de producir y transformar los productos. Ekolurra es una apuesta por los productos locales elaborados y los circuitos cortos de comercialización dirigidos al mercado local”.**

Urdaspal Alberdi, baratzezaina, eta Jose Ramon Arrieta, artzaina. Juntakidea 2018-2023

La agricultura ecológica en general tiene su origen en el territorio, por eso es importante no dejar de producir y transformar los productos. Ekolurra es una apuesta por los productos locales elaborados y los circuitos cortos de comercialización dirigidos al mercado local.

En el caso del sistema Ekolurra se han añadido otros parámetros para obtener el sello de certificación con el territorio, como por ejemplo el fomento de la reproducción de los animales autóctonos en la cría de animales, que debe ser el primer productor de animales marinos aquí. O en el caso de las aves de corral, por ejemplo, se ha limitado a Lasa y la Marmitas en el caso de la agricultura, de favorecer la reproducción de sarrats y plantas autóctonas, de forma que sólo se acepta la venta de huevos autóctonos tanto de se ha certificado la producción de utilizar métodos tradicionales en las nuevas plantaciones de aves en el caso de la cría de animales de alimentos, se demanda que un número de marmitas por cada producción aquí, por supuesto, se ha limitado de la realidad productiva, en general se pide el 100% en el caso del pan, por ejemplo, en el 50% y en el caso de los productos de comercialización se recomienda que se usen variedades autóctonas de plantas locales.

## 4.4. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.

### 4.4.1. Hitzaldiak eta formakuntza

*Hitzaldiak eta formakuntza FOPE A11.1 lan ildoaren barruan jasota daude.*

#### ***Fruitu baratza - mahaia sagarraren ekoizpena***


Ekainaren 28an, HAZIKo urteko programazioaren barnean eskeintzen den formakuntzaren barnean, 4 orduko ikastaroa eman zen. Ikastaroa Villabonako Otelarre finkan burutu zen. Ikastaroa frutagintzako aholkularia den Aitor Etxeandiak eman zuen.

Ikastaro honen helburuak mahaiko sagar ekologikoaren ekoizpenean egin beharreko inbertsioak, kudeaketa teknika eta merkaturatze aukerak ezagutzea izan ziren. Parte hartzea altua izan zen.



#### ***Nekazaritza ekologikoan erabili daitezkeen sargaien tailerra (Taller de insumos utilizables en agricultura ecológica)***

Azaroaren 6an, INTERECOKo teknikaria den Josep Valero Castelók, HAZIK urteko programazioaren barnean eskeintzen duen formakuntzaren barnean, zoom aplikazioa erabiliz, webinar formatu baten bidez on-line ikastaroa eman zuen. Barazkigile ekologikoei eta teknikariei zuzendutako ikastaroa izan zen. Ikastaro honen helburua sargai bat ekoizpen ekologikoan erabili daitezkeen jakiteko beharrezkoak diren tresnak ezagutzea izan zen.



### **Baratzezainen bidaia Almeriara**



Kontseilutik funtsezkoa ikusten dugu Nekazaritza Ekologikoaren baitan egiten diren ekimen desberdinak eta irteerak babestea. Horren adibide da, otsailaren 10etik 13ra Bizkaiko 6 nekazarik Almeriara eginiko bidaia hainbat enpresa eta nekazari ezagutzera.

Balorapen positiboa egin dute parte hartzaileek. Beste lekuetan zer egiten den jakitea eta egiten dituzten horietatik ikastea. Barazkigintzan etengabe ikasi behar dela hobetzeko eta hori taldean egitean benetan aberasgarria izan daitekela eta jarraitu beharreko bidea dela ondorioztatu dute.



### **Abelazkuntza ekologikoaren inguruko topaketa**

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseiluak insumo baxuko abeltzaintza ekologikoari buruzko erakustaldi-jardunaldi bat antolatu zuen, ustiategi baten bideragarritasunaren oinarri gisa. Erakusketa-jarduera horren helburua izan zen ahalik eta ohiko abeltzain gehien erakartzea, beren ustiategia nolakoa izango zen ikus zezaten trantsizioa egitean.

Teknikariek eta jarduera garatzen den ustiategiaren titularrak ekoizpen ekologikoan erabiltzen dituzten lan-sistemak erakutsi zituzten, ohiko ekoizle gisa erabiltzen zituzten sistemekin alderatuta.



Pentsuen eta bazken mendekotasunak ustiategiaren errentagarritasunean duen eragina erakutsi zen, ekoizpena handitzeko belardien erabilera, eta aprobetxamendu hobe lortzeko artaldeak nola dimentsionatu eta antolatu irakatsi zen.

Errentagarritasuna optimizatzea ahalbidetzen duen sistema bat irakatsi zen, pentsu eta bazkekiko mendekotasun txikian oinarritutako abeltzaintza-eredu berri batekin.

Bisita Elorrioko Errekazabaleta Ranch ustiategira egin zen. Jarduera eman zuten teknikariak, abeltzainarekin batera, Ander Arando izan ziren, Abelur enpresako teknikaria eta Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoko eta Zooteknia eta Kudeaketa Iraunkorreko Masterreko diplomaduna.

#### 4.4.2. Idiazabal JIB gazta ekologikoan sartzeko gida

*Hitzaldiak eta formakuntza FOPE A2.2 lan ildoaren barruan jasota daude.*

Gida honekin planteatu eta lortu diren helburuak ondorengoak izan dira:

- Kontseilu arautzaile bien artean koordinatutako kontrol-sistema baten zirriborroa egitea, baliabideak optimizatzeke eta bikoiztasunak saihestea ziurtapen bikoitza

duen ekoizpen baten kontrol-lanetan, Idiazabal gazta eta ekoizpen ekologikoko zigiluarekin.

- "Gazta ekoizpen ekologikoan sartzeko gida" idaztea eta zabaltzea Idiazabal BJDn.





## 4.5. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.

### 4.5.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin

*Azoka profesionalak Euskadin FOPE egitasmoan A7.2 lan ildoan jasota daude.*

#### *Bioterra*

**Ekainaren 2, 3 eta 4an Bioterraren 20. Edizioa** ospatu zen eta beste urte batez Batzorde Antolatzaileko kide izan gara. 20.edizio honetan Kontseiluak 48m<sup>2</sup> erreserbatu zituen Euskadiko eremu bezala, Kontseiluak 12m<sup>2</sup> hartu zituen eta gainerako espazioa parte hartu zuten 6 eragileren artean banatu zen. Euskadiko Kontseilu Arautzaileko kide diren Gipuzkoako enpresa erakusketariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuaren babesia jaso zuten. Kontseiluaren gunean alde batetik, informazio puntua eta ekogurpila jolasa burutu ziren.



Kontseiluaren gunean nekazaritza ekologikoaren eta elikagaien inguruko informazioa eman zen. Aurten bisitaria **erakartzeko EKO GURPILA jolasa burutu zen** eta arrakasta izan zuen. Jolasaren bitartez nekazaritza ekologikoaren inguruko galdera desberdinak burutu ziren eta bisitariak asmatuz gero, merchandising materiala edo 5€ko **bonoak Euskadiko ekoizleen gunean** erabiltzeko eskuratu zitzaizkien. Kontseiluaren helburua jolas honen bitartez Euskadi guneko ekoizleen salmentak sustatzea ere izan zen. Guztira 95 bono jaso ziren, 15 kamiseta, 150 boligrafo, 30 liburu, 80 koloretako boltsa eta 150 yutezko boltsa banatu ziren. Honek adierazten du gutxienez 387 parte hartzaile izan zirela.

Bestalde, **Elika Eskolako sukaldariek** **showcooking-a antolatu zen** azokan parte hartzen zuten ekoizleen elikagaiekin batch cooking bat nola egin erakutsi zuten ekoizleek haien elikagaien ezaugarriak aipatzen zituzten bitartean. Azkenik, urtero bezala **txikienei zuzendutako**



**tailerra** burutu zen Lurzoruak duen garrantzia aipatuz.

Bioterrako lagunek bisitarien artean Euskadiko 6 saskiren zozketa burutu zuten, bakoitza 100 €-tan baloratuta.

Bioterrako 20. edizioak guztira 10.021 bisitari jaso zituen, gehienak Gipuzkoarrak eta ondoren Iparralde-Frantziarrak, Nafarrak eta ondoren Bizkaitarrak.



### BioCultura Bilbao

**Urriaren 6tik 8ra ospatu zen Bilboko BEC erakustazokan.** Euskadi gunean 10 eragilek parte hartu zuten denetarik elikagaiak eskainiz; taloak, barazkiak, gatza, urdailazpikoa, izozkiak, haziak eta ahuakate olioak. Euskadi gunearen erreserba Eusko Jarlaritzatik babestu zen.

Biocultura Bilbao azokan bestalde, INTERECOREkin elkarlanean **B2B jardunaldiak** eta **etiketatu tailerra** antolatu ziren. Bestalde, **Artxandako goi mailako ostalaritza eskolarekin** batera Euskadi gunena parte hartu zutenen **elikagaiekin showcooking**-a antolatu zen.



Gainerako Euskadiko azoketan bezala **EKOGURPILA jolasa burutu** zen eta arrakasta handia izan zuen. Jolasaren bitartez nekazaritza ekologikoaren inguruko galdera desberdinak burutu ziren eta Euskadi guneko salmentak sustatu ziren 5 €ko **bonoen erabilerari** esker. Guztira 137 bono jaso ziren eragile desberdinen artean, 10 kamiseta, 50 liburu, 100 totebag poltsa eta 100 yutezko poltsa. Gutxienez beraz, 450 bisitarik parte hartu zuten Nekazaritza Ekologikoaren jolasean.

Biocultura Bilbao azokak guztira 10.000 bisitari inguru jaso zituen.



## Bioaraba

Azaroaren 17tik 19ra Gasteizen, Iradier Arenan, **BIOARABA VIII**. Edizioa ospatu zen. Euskadi gunean Nekazaritza ekologikoaren gunea antolatu zen eta gunean Kontseiluaz gain 5 eragilek parte hartu zuten.

Bioaraban ere **EKOGURPILA jolasa antolatu** zen nekazaritza ekologikoaren informazioa modu dibertigarriagoan helarazteko eta Euskadi guneko ekoizleen salmentak bultzateko.

Guztira 81 bono, 15 kamiseta, 30 ipuin, 50 totebag poltsa, 100 yutezko poltsa, 14 agenda eta 100 boligrafo banatu ziren. Gutxienez beraz, 274 parte hartzaile izan ziren Bioarabako azokan.

Bioaraba azokatik guztira 12.000 bisitari igaro ziren.



## EKOEUS azoka profesionalak Kanpoan

*Euskadi irla kanpoko azoka profesionaletan FOPE A7.3 lan ildoaren barruan jasota daude.*

### BioCultura Barcelona eta Madrid

**BioCultura Barcelona** maiatzaren 4tik 7ra Palau Sant Jordin ospatu zen eta azaroaren 21etik 24ra Biocultura Madrid IFEMA erakustazokan. Vida Sana elkarteak antolatutako nekazaritza ekologikoaren eta kontsumo arduratsuen azoka egokia da mota guztietako elikagai ekologikoen erakusleho bezala. Hau horrela, Kontseiluak Euskadiko Elikagai Ekologikoak ikustarazteko azoka hauetan Euskadi gunea antolatu du. Guztira 6 eragilek parte hartu dute.



### Biofach Nuremberg 2024

Eusko Jaurlaritzak elikagaiak kanpoan sustatzeko helburuarekin antolatzen dituen azoken eskaintzara elikagai ekologikoei zuzendutako azoka profesionala gehitu da: **BIOFACH NUREMBERG 2024**. Nobedade hau FOPE egitasmotik bultzatutako ekimena izan da.

#### 4.5.2. EKOAZOKA txikiak.

Azoka txikiak eta bestelako azokak FOPE egitasmoan A7.1 Lan ildoaren baitan kokatzen dira.

##### Udako azoka ekologikoak

Udako azokak duela hogeit hamar urte baino gehiagotik antolatzen dira EAEn. Tokiko ekoizle ekologikoentzat salmentarako eta kontsumitzaileekin duten harreman zuzena sendotzeko erakusleioa dira. Azoka hauek Bolur, Bionekazaritza eta Ekolur elkarteekin batera kudeatzen dira. Elkarte bakoitzak azoka jakin batzuk antolatzen ditu eta Kontseilua azoken kanpaina bateratzeaz eta publizitatea kudeatzeaz arduratzen da.

2023an, 15 azoka antolatu dira. Azokak, Elorrio, Zigoitia, Zarautz, Zumaia, Donostia, Errenteria, Algorta, Zerain, Aretxabaleta, Mungia, Gasteiz, Eibar, Durango, Leintza-Gatzaga eta Amasa-Villabonan egin dira.



Bi kanpaina diseinatu dira: orokorra azoka guztietarako eta azoka bakoitzerako pertsonalizatua. Kanpaina orokorraren helburua Udako Azoka Ekologikoaren ekimenaren berri ematea izan da; Facebook Ads-en iragartzeaz gain Euskadi Irratian eta Berrian ere iragarri dira azokak.

Bestalde, azoka bakoitzerako diseinatutako kanpainen tokikotasunaren estrategiarekin jarraitu da eta sareetan tokian tokiko eta inguruko herritarrak hartu dira xede-taldetzat.

Horrez gain, prentsa-oharrak bidali dira tokian tokiko hedabideetara azokak komunikatzeko. Aurreko urtean berritutako Udako Azoken irudia mantendu egin da irudia herritarren memorian gordetzeko helburuarekin.

Bide batez, Kontseiluak identifikazio- eta sustapen-material komuna jarri zuen azoka guztietan erabilgarri azoka multzo osoa unitate bat bezala aurkezteko helburuarekin. "Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da" eskuorriak eta ekoizpen ekologikoaren informazio orokorra ematen duen triptikoa ere banatu ziren.



Ekimena erakargarriagoa izateko eta elikagai ekologikoak ezagutarazteko azoka batzuetan dastaketak eta showcooking-ak antolatu ziren.



Zumaian, Errenterian, Zerainen eta Eibarren Osoacooking-ek elikagai ekologikoekin showcooking-ak Ekoerrezetak antolatu zituen. Gasteizko azoka ekologikoari dagokionez, fruitu eta zuku ekologikoen dastaketa egin zen eta Arabako elikagai ekologikoekin dastaketa antolatu zen. Mungian azkenik, elikagai ekologikoen inguruko hizlaria, haragi ekologikoaren dastaketa eta pasta tailerra antolatu ziren.

Udako azoketan salmentak sustatzeko helburuarekin 5€ko erosketa bonoak banatu ziren herrietako udaletxetan edo kultur etxeetan. Guztira 318 bono erabili zituzten kontsumitzaileek.

Bi kanpainek oso emaitza onak izan dituzte, herriz herriko kanpainaren kasuan 2.034.151 agerraldi izan ditu iragarkiak, 2022an baino 907.238 agerraldi gehiago. Guztira 1 127.564 pertsonengana iritsiz.

Kanpaina orokorrari dagokionez, Facebook Adseko iragarkia 123.372 pertsonarengana iritsi da. Berriako kanpainari dagokionez lortu den klik ratioa oso altua izan da, kanpainen batz besteko klik ratioa 0,16-0,20koa da eta udako azoka ekologikoen kanpaina %0,55koa lortu da.



Beste azoka eta kaleko merkatu batzuk

- **Elorriko Ferixa Nagusikoa**

Elorrixoko Ferixa Nagusiko azokan, Durangaldeko ekoizleek itsas-kontenedorea erabili zuten postu bakarra antolatuz eta Durangaldeko ekoizpen ekologikoaren eskaintza bistaratuz. Honez gain, ekoizpen ekologikoaren erakusketa izan zen.

### 4.5.3. Merkaturatze sarea

*Merkaturatze sarearen proiektua Fope egitasmoan A6.1. lan ildoaren baitan kokatzen da.*

2021ean abian jarri zen zuzeneko salmenta bultzatzeko plataformaren egokitzapenekin eta dagoeneko martxan dabiltzan 10 merkatuen funtzionamentuarekin jarraitu da. Plataformaren egokitzapenak ekoizleen autonomiaren lanketarekin estu lotuta daude; elikagaiak igotzeko aukera, argazkiak ateratzekoa, eskarien kudeaketa erraztekoa...

2023an Merkaturatze Sarearen bitartez 20 ekoizleek haien salmenta zuzenak bideratu dituzte eta guztira 196 eroslek egin dituzten beraien erosketa ekologikoak plataforman.


Merkaturatze Sarea plataforman ekoizleei zuzenean erosteko eskaintza zabala aurkitzea da helburua. Erosketa bakarrean ekoizle desberdinen elikagaiak jasotzeko modu eroso, gardena eta eraginkorra da.



### 4.6. KOMUNIKABIDEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU

Helburu hau eredu ekologikoaren ezagutza bultzatzearekin lotuta dago eta FOPE egitasmoan A8.2 lan ildoarekin bat egiten du.

Urtean zehar komunikabide eta hedabideekin harremana mantendu da nekazaritza ekologikoarekin lotutako edukiak partekatu, jorratu eta zabaltzeko.





## 5. ERREGISTRO KONTROL IKUSKARITZA ETA ZIURTAPEN PLANA

Plan honen helburua erabiltzaileei eta kontsumitzaileei Nekazaritza Ekoizpen Ekologikotik (edo Biologikotik edo Organikotik) ekoiztako eta identifikatutako produktuek EBko araudian ezarritako gutxieneko baldintzak eta baldintza ofizialak betetzen dituztela bermatzea da.

Urte hasieran egindako arriskuen ebaluaketa batetik diseinatzen da kontrol plana, eragile bakoitzari egin beharreko kontrol eta analitika kopurua ezarriz. Auditoretza lanetan ari den lankideen kopurua plan honen beharrianetara moldatzen da, honetarako urtean zehar sortutako ustekabeak planifikatu eta konpondu eta auditore bakoitzaren arreta indibidualagoa ematen zaio, lantaldearen ahalmena bat datorrela egin beharreko kontrol kopuruarekin bermatuz.

Estatuko Nekazaritza ekologikoaren beste kontseiluekin batera INTERECO elkartean parte hartzen jarraitu da. Bertan egindako lanak, intsumoen ziurtagiriak, dibulgazio-jardunaldiak eta ziurtapenerako irizpideen koordinazioa izan dira.

Kontrol eta ziurtapenari dagokionez, 2023an ondorengo ekintzak egiten jarraitu da:

### 5.1 ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO KONTSULTEI ARRETA

Egunero jasotzen dira **telefonoz edo posta elektronikoz** dagoeneko erregistratuta dauden eragileen edo Araudiaren kontrol-sistema edo baldintza teknikoak ezagutu nahi dituzten pertsonen kontsultak. Batzuetan, kontsultek ondorengo azterketa bat eskatzen dute.

2023an, ziurtapen-prozesuan interesa erakutsi duten EAEko ekoizleen eta elaborazio-enpresen 119 informazio-eskaerari erantzun zaie, aurreko urteen antzera.

### 5.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK

Aurten, ziurtagiri ekologiko guztiak TRACES deritzon Europar Batasuneko datu base ofizialean publikatu dira.

### 5.3 KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA

2023an, Kontseiluko kalitate sistemaren bete beharreko baldintzak betetzen jarraitu izan du Kontseiluak, hala nola, barne auditoretza, zuzendaritzarekin egindako errebisioa eta ziurtapen komitearen batzarra

### 5.4 FORMAKUNTZA

2023 urtean gai desberdineko edukien inguruko formakuntza saioak jaso dira, upategien trazabilitatea eta txahalen kudeaketari buruzkoa halaber. INTERECO-ren formakuntza jardunaldirik ez da egin.

## 5.5 INTERECOn PARTE HARTZEA

INTERECO Estatuko Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu guztiak biltzen dituen elkarte da. Irizpideak homogeneizatzeko eta araudi ekologikoa interpretatzeko lan garrantzitsua egiten du. Kontseiluen arteko barne-foro bat du, ziurtapen-irizpideak kontrastatzeko eta homogeneizatzeko aukera ematen duena, eta NEren Europa mailako ziurtatzaileak biltzen dituen EOCC erakundeko kide da. Gainera, kontrol-teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu eta komunikazio-teknikarien koordinazio-taldea dago.

Iker Iglesias Kontseiluko kideak Interecoko lehendakari kargua du.

Kontseiluak, bazkide gisa, elkarteak garatutako jardueren diseinuan eta antolaketan parte hartzen du. Kontseiluko zuzendari teknikoak jabetxe ekologikoen batzordean eta NEn erabil daitezkeen intsumoak ziurtatzeko batzordean ere parte hartzen du

## 5.6 KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK

### 5.6.1 Eragile ekologikoen erroldaren banaketa 2023ko abenduaren 31n

#### Eragileen errolda

2023an erroldak %3eko igoera izan du. Lurraldeka, hazkundera handiagoa izan da Araban. Hala ere, eragile gehien Gipuzkoan daude oraindik. Eta Bizkaiko datuei dagokienez, %2ko hazkuntza izan da.

	2017 Δ	2018 Δ	2019	2020	2021	2022	2023
ARABA	154 %5	168 %9	179 %6	187 %4	209 %12	219 %5	235 %7
BIZKAIA	175 %9	190 %9	208 %9	213 %2	218 %2	214 %-2	218 %2
GIPUZKOA	213 %3	227 %6	240 %8	258 %7,5	283 %10	285 %0,7	287 <%1
<b>GUZTIRA</b>	<b>542</b> <b>+%5</b>	<b>585</b> <b>+%8</b>	<b>627</b> <b>+%7</b>	<b>658</b> <b>+%5</b>	<b>710</b> <b>+%8</b>	<b>718</b> <b>+%1</b>	<b>740</b> <b>+%3</b>

Eragile bakoitzaren jarduera ekonomiko nagusia kontuan hartuta, orientazioaren araberako banaketan Gipuzkoa nabarmentzen da gehien.

Talde handiena nekazal ekoizleena da %53, ondoren, eraldaketarena % 22.

	nekazal ekoizpena	abeltzaintza	eraldaketa	merkaturatzea	inportazioa	GUZTIRA
ARABA	169	33	71	17	3	293
BIZKAIA	143	52	45	25	6	271
GIPUZKOA	178	56	87	30	6	357
<b>TOTAL</b>	<b>490</b>	<b>141</b>	<b>203</b>	<b>72</b>	<b>15</b>	<b>921</b>

## Eragileek izen-emandako jarduera guztietako datuak

Atal honetan, kontuan hartu behar da eragile batek ziurtatutako jarduera bat baino gehiago izan dezakeela. Arrazoi honegatik eragile kopurua ez da jarduera guztietan izen emandako eragile kopuruarekin bat etorriko.

Ikus daiteke aurreko urteetan ez bezala, Bizkaia eta Gipuzkoan, jarduera kopurua jeitsi egin dela; Araban aldiz, igo egin da. Merkaturatzaileen eta inportatzaileen jarduerak behera egin dira. Araudi berriak merkaturatzaileen inguruko eskakizunak malgutu ditu, hau izan daiteke arrazoaia.

Eragile gehienak baratzezaintzan aritzen dira, eta ondoren fruta zaintzan. Arauditegi berria indarrean sartzeak aukera eman du jarduera berri bat ziurtatzeko, gatz ekoizpena.

Abeltzaintzari dagokionez, haragitarako behien hazkuntzan igoera izan da.

(*)	2017 Δ	2018 Δ	2019	2020	2021	2022	2023
<b>Landare ekoizpena</b>	365 %4	389 %6	422 %8	439 %4	479 %9	<b>478</b> <b>%-0,2</b>	<b>490</b> <b>%2</b>
<b>Animalia ekoizpena</b>	90 %13	94 %4	104 %10	118 %13	128 %8	<b>138</b> <b>%8</b>	<b>141</b> <b>%2</b>
<b>Elaborazioa</b>	142 %23	161 %13	169 %5	181 %7	197 %8	<b>206</b> <b>%4,5</b>	<b>203</b> <b>%1</b>
<b>Merkaturatzea</b>	60 %5	66 %10	72 %9	77 %7	83 %7	<b>77</b> <b>-%7</b>	<b>72</b> <b>-%6</b>
<b>Inportazioa</b>	8 %33	14 %75	15 %7	17 %13	20 %17	<b>16</b> <b>-%20</b>	<b>15</b> <b>-%6</b>

Ondorengo taulan orientazio bakoitzean dauden izen emateak ikusi ditzakegu jarduera bakoitzaren arabera sailkatuta:

NEKAZAL EKOIZPENA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Bazka eta proteaginosoen laborantza	4			4
Frutazaintza		3	5	8
Baratzezaintza	1	3	3	7
Mahastizaintza	13	1	2	16
ABELTZAINZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Arrautzatarako hegaztien hazkuntza		1	1	2
Esnetarako ahuntzen abeltzaintza			1	1
Haragitarako ardi abeltzaintza	1	2	11	14
Haragitarako behien abeltzaintza	1	1	2	4
Zaldien abeltzaintza	2	3		5

### Ekologikoan ziurtatutako nekazal lurren azalera.

Azalerak urteko %18eko erritmoan egin du gora. Bizkaian izan da lurren azalareran igoera nabarmenena, %30ekoa abeltzain handiek izena eman dutelako. Lurraldeka ordea, Arabako azalera da garrantzitsuena, mahatsondoan, larreen eta estentsiboen laborantzari esker.

	2017 Δ	2018 Δ	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023
<b>Azalera (ha)</b>	<b>4.244</b> <b>%32</b>	<b>4466</b> <b>%5</b>	<b>5661</b> <b>%27</b>	<b>6789</b> <b>%20</b>	<b>7905</b> <b>%16</b>	<b>9104</b> <b>%15</b>	<b>10772</b> <b>%18</b>
<b>Araba</b>	2.670 %52	2735 %2	3245 %18	4046 %25	4664 %15	5213 %12	5933 %14
<b>Bizkaia</b>	824 %5	883 %7	1191 %34	1417 %19	1621 %14	1699 %5	2204 %30
<b>Gipuzkoa</b>	750 %15	848 %13	1225 %44	1326 %8	1618 %22	2192 %35	2636 %20

Azaleraren %76a larreei dagokie, larreen azalera nabarmentzen da probintzia guztietan. Larreen ondoren, mahastiak Araban, fruta-arbolak Gipuzkoan.

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Ale zerealak	274	272	1	1
Ale lekaleak	78	76	0	2
Ortuariak	157	20	71	66
Tuberkuluak	22	21	1	0
Fruta-arbolak	431	33	78	320
Olibondoak	34	31	0	3
Mahastiak	1410	1368	13	29
Fruitu lehorrak	54	11	4	39
Baso eta basoko bilketa	15	14	1	0
Larreak, belardia, bazka eta proteaginosoak	8215	4009	2033	2173
Lugorri eta ongarrri berdea	75	70	2	3
Haziak eta haztegiak	1	0	0.1	0.4
Laborantza industrialak	8	8	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>10772</b>	<b>5933</b>	<b>2204</b>	<b>2636</b>

### 5.6.2 2023an izandako izen-emateak eta bajak

#### Urteko izen-emate kopurua

Aurreko urtearekin alderatuta %17ko gorakada izan da (iaz 43, aurten 51). Horrez gain, 7 inskripzioak bertan behera gelditu dira, alta eskaera prozesua ez bukatzearen eragileek.

Ziurtagiria lortzeko interesak ordea, bere horretan jarraitzen du, 119 informazio eskaera jaso digutu.

Eragile batek hainbat jardueratan izena eman badezake ere, azpi-erolden arabera sailkatzerakoan jarduera garrantzitsuena edo nagusia zehaztu da. Alta gehienak ekoizleenak izan dira, 2021an izan zen alta kopuru

istorikotik beherago jarraitzen dugu baina 2022ko kopurua hobetu da eta 2021 aurreko zenbakia izan da 2023 urtean.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>ALTAK</b>	<b>64</b>	<b>59</b>	<b>75</b>	<b>65</b>	<b>63</b>	<b>82</b>	<b>43</b>	<b>51</b>
Ekoizpena	37	33	40	47	41	<b>70</b>	<b>35</b>	<b>48</b>
Elaborazioa	14	18	22	12	15	<b>8</b>	<b>6</b>	<b>3</b>
Merkaturatzea	11	6	9	4	3	<b>3</b>	<b>2</b>	<b>0</b>
Inportazioa	2	2	4	2	4	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

Izen-emateak lurraldearen arabera sailkatuta alta gehienak Arabakoak izan dira %45-a.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Izen-emateak	23	13	15	51

Ziurtatuta duten jarduera handitzeko eskaera egiten duten eragileei dagokienez, aurtengo beherakada izan da. Guztira 38 eskari izan dira.

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Ekoizpena	9	6	2	17
Abeltzaintza	4	3	10	17
Elaborazioa	2	1	1	4
GUZTIRA	15	10	13	38

Eskaera kopurua	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
<b>Izen- emateak</b>				
2015	24	23	16	63
2016	19	23	22	64
2017	18	29	21	68
2018	24	23	30	77
2019	21	26	26	73
2020	20	19	26	65
2021	29	23	33	85
2022	18	12	13	43
<b>2023</b>	<b>23</b>	<b>13</b>	<b>15</b>	<b>51</b>
<b>Ziurtatutako jarduera handitzeko eskaera</b>				
2015	15	9	7	31
2016	10	7	10	27
2017	10	17	11	38
2018	11	15	18	44
2019	8	17	20	45
2020	20	16	12	48
2021	14	17	18	49
<b>2022</b>	<b>18</b>	<b>8</b>	<b>13</b>	<b>39</b>
<b>2023</b>	<b>15</b>	<b>10</b>	<b>13</b>	<b>38</b>

Izen emandako eragileen perfila baloratzeko, soilik ekologikoan dihardutenen ehunekoa, titular gazteak dituztenena eta emakumeen presentzia dutenena hartzen dira kontuan.

Jarduera mixto bezala ulertzen da jarduera berean eredu ekologikoa eta ez ekologikoa egitea. Jarduera eksklusibotzat aldiz, soilik ekologikoan lan egiten denean.

(*)	Guztira	Nekazal ekoizpeneko errolda	Animalia ekoizpeneko errolda	Elaborazioko errolda	Merkaturatzeko errolda
Soilik ekologikora dedikatzea	%80.4	%80	%100	%0	0
Titular gazteak (< 45)	%35.2	%31.4	%46.1	%33.3	0
Emakume titular edo titularkideak	%25.5	%20	%38.4	%33.3	0

## Baja kopurua

Aurreko urteekin alderatuta inoiz baino baja gehiago izan dira. Arrazoiak aztertuz ikusi daiteke baja gehienen ondorioa nekazal jarduera utzi izana izan dela. Hori, krisiaren ondorio nabarmenatarikoa da.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
<b>BAJAK</b>	<b>31</b>	<b>27</b>	<b>22</b>	<b>28</b>	<b>27</b>	<b>35</b>	<b>36</b>
Ekoizpena	24	13	10	21	22	21	26
Elaborazioa	3	9	7	4	3	7	3
Merkaturatzea	4	4	4	3	2	4	7
Inportazioa		1	1	0	0	3	0

Arrazoiak anitzak izan dira:

Borondatezko bajaren ARRAZIOIAK	Zenbatekoa:
Jarduerarekin jarraitzen du baina ekologikoa egin gabe:	<b>8</b>
Jardueraren erabateko etendura, arrazoiak:	<b>28</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ziurtatuta egoteko beharrezana ez duten dendak (araudi berria)</li> <li>Jubilazioak</li> </ul>	2 3
<ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazal jarduera uzten du</li> <li>Beste enpresa batek hartuta</li> </ul>	23 1

**2023an ziurtatutako 51 jarduera berrien sailkapena****Nekazal ekoizpena:**

Alta gehienak mahastigileak dira. Oraindik ere nabarmena da izen-ematea eskatzen duten zereal ekoizleen kopuru txikia, 4 eman dira altan, momentuz bazka eta proteaginoso ekoizpenetik hasita.

Enpresa berriak: (2/35) %5

Ekologikoan soilik dihardutenak: 28/35) %80

Titular gazteak (45 urte baino gutxiago): (15/35) %42

Emakume titular edo titularordeak: (7/35) %20

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Bazka eta proteaginosoen laborantza	4			4
Frutazaintza		3	5	8
Aire libreko baratzezaintza	1	3	3	7
Mahastizaintza	13	1	2	16
<b>NEKAZARITZA</b>	<b>18</b>	<b>7</b>	<b>10</b>	<b>35</b>

**Abeltzaintza:**

Haragitarako behien jarduerak goranzko joera mantentzen du.

Enpresa berriak: (3/13) %23

Ekologikoan soilik dihardutenak: (13/13) %100

Titular gazteak (45 utetik beherakoak): (6/13) %46

Mujeres titulares o cotitulares: (5/13) %38

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Haragitarako behiak	1	1	2	4
Zaldien hazkuntza	2	3		5
Arrautzetarako hegaztien hazkuntza		1	1	2
Haragitarako ahuntzak		1		1
Esnetarako ahuntzak			1	1
<b>ABELTZAINZA</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>13</b>



**Enpresa elaboratzaileak:**

2023 urtean bakarrik 3 elaboratzaile berriek eskatu dute alta. Orokorrean, jaitsi egin da aurreko urtekoarekin alderatuta (6 aurreko urtean).

Enpresa berriak: (0/3) %0

Ekologikoan soilik dihardutenak: (0/3) %0

Titular gazteak (45 urtetik beherakoak): (1/3) %33

Emakume titular eta titularordeak: (1/3) %33

Jarduera	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Arrain kontserben elaborazioa			1	1
Tea eta kafearen elaborazioa	1			1
Ardoaren elaborazioa	1			1
<b>ELABORATZAILEAK</b>	<b>2</b>		<b>1</b>	<b>3</b>

## 6. 2023KO KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK

Kontrol-planak urtarrilaren 31n hasten dira, eta urte natural bateko iraupena dute. Txosten honetan jasotzen diren datuak 2023ko urtarrilaren 31tik 2023eko abenduaren 31ra bitartean egindako kontrolei eta hartutako ziurtapen-erabakiei dagokie, nahiz eta 2023ko kontrol gisa deskribatzen diren (2023ko kontrol-eta analisi-plana).

Kontrolatutako **espedienteen kopuruak** gora egiten jarraitu du; 721espediente 2022ean eta 2022an 731 espediente.

Kalean guztira **1137 (1063 kontrolak+74 laginak) kontrol egin dira.**

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kontrol kopurua	768	739	800	850	899	965	945	1063
Kontrol kopurua eragileko	1,5	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4

Kontrol hauen barne daude: jarraipen auditoretzak, auditoretzak aurrez abisatuta eta abisatu gabe, ezohiko ikuskaritzak, prozesuen "in situ" auditoretzak eta homologazio berriak.

Gainera, aurretik abisatu gabe beste 74 ikuskaritza bisita egin dira laginak jasotzeko. Aurten, Europar Batasunak ezarritako irizpideetara hurbiltzeko helburuarekin lagin kopurua jaitea erabaki zen.

Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Europar Batasuneko 2018/848 Araudian deskribatutako kontrol-sistemak, gutxienez, operadore bakoitzari **urteko kontrol** bat egitea arautzen du. 731 eragile kontrolatu dira guztira (alta berriak eta ondoren baja eman zaien espedienteak barne).

Ziurtatutako 718 eragileen artean, % 10ri kontrol-bisita gehigarriak egin zaizkie (73/718), eta produkzioaren analisia laborategian % 10-ri (74/718). Honekin araudiak eskatutako kontrol gehigarri eta analitikoaren kopurua bete da, % 10 eta % 5, hurrenez hurren.

Guztira, 230 eragileri egin zaie kontrol-bisita bat baino gehiago, edo laginak hartu zaizkie analisirako, hau da, 2023an kontrolatutako eragile guztien % 31-ri (230/731), aurreko urtean bezala.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Bisita gehigarriak	16%	14%	14%	12%	11%	10%	10%
Laborategiko analisiak	22%	18%	20%	18%	25%	9%	10%

## Ziurtatutako produktuen analisiak:

Urteko kontrol-planean, ziurtatutako jardueren mota bakoitzari laborategiko analisiak egitea adosten da. Ondoren, jarduera bakoitzean zein produkturi egingo zaion analisia adostuz.

2023an, hondakin anitzen eta transgenikoen presentziaren analisiak egin dira, landare-produktu anitzetan, batez ere barazkien eta mahatsaren hosto eta fruituetan, muztioan, eta pentsu formuletan. Bai eta ezian ere.

Aurten bi laborategirekin lan egin da; SICaAgri Almeriakoarekin eta GEO analisiak Agrolab laborategiarekin. Lagin guztiak aurrez abisatu gabe hartzen dira.

Guztira 74 lagin analizatu dira. Kasu gehienetan, laginak zuzenean jaso dira ekoizpen-unitateetan edo industriaren instalazioetan. Ondorengo taulan ikus daitezke burututako analisiak:

	Hondarrak	GEO (OGM)	Metal astunak	Etileno oxidoa
<b>Olioa</b>	<b>1</b>			
<b>Barazkiak</b>	<b>3</b>		<b>6</b>	
<b>Elaboratuak</b>	<b>3</b>			
<b>Espezieak</b>				<b>1</b>
<b>Bazka laboreak</b>	<b>6</b>			
<b>Frutak</b>	<b>3</b>		<b>2</b>	
<b>Infusioak</b>	<b>1</b>			
<b>Landareak hazitarako</b>	<b>1</b>			
<b>Pentsua</b>	<b>1</b>	<b>4</b>		
<b>Lurra</b>	<b>1</b>			
<b>Mahatsa</b>	<b>34</b>			
<b>Ardoa</b>	<b>7</b>			
<b>Guztira 2021</b>				
	<b>160</b>	<b>6</b>	<b>1</b>	<b>2</b>
<b>Guztira 2019</b>				
	<b>128</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	
<b>Guztira 2018</b>				
	<b>124</b>	<b>8</b>		
<b>Guztira 2017</b>				
	<b>109</b>			
<b>Guztira 2016</b>				
	<b>98</b>	<b>5</b>	--	

### Lagin analitiken emaitzak

Analizatutako laginen (64) %95ean ez da inolako kutsadura arrastorik antzeman. 3 eragilei dagozkien 3 laginetan soilik aurkitu dira , pestiziden hondakinen arrastoak.

Hiru eragilearen kasuan, hasierako jarraipenean kutsaduraren jatorria zein izan zitekeen ez zen argitu, eta ondorioz, kaltetutako uzta ezom ozam zen ekologiko moduan merkaturatu.

Soilik kasu batean eragilea erroldatik bajan eman zen, multihondakin arrastoen agertzea errepikakorra izan zelako.

### Egindako kontrolatik eratorritako ziurtapen-erabakiak

1. Taulan detektatutako ezadostasunak zerrendatzen dira eta hauetako batzuk aurreko atalean aipatutako saiakuntza analitikoetatik eratorriak dira.

Kontrolatutako 731 expedienteetatik batean ziurtagiria kendu zen. Beste batean denboraldiko suspentsio bat eman zen.

**1. Taula- LAGINETAK AURKITUTAKO EZADOSTASUNEN LABURPENEA**

2023 URTEA 731 eragileri burutu zitzaizen jarraipena.

Araudiaren gaia	Espediente kopurua (*)	Ezadostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Emaizta analitiko desegokia	3	Laborategiko emaitza: Ardoan hainbat substantziaren arrastoen agerpena	Upategia ez ziurtatzea
		Laborategiko emaitza: Tomatean substantzia arrastoen agerpena.	Lotea deskalifikatu eta ziurtagiria berriztatu.
		Laborategiko emaitza: Mahatsan hainbat substantziaren arrastoen agerpena	Lotea deskalifikatu eta ziurtagiria kendu
Nitrogeno erabilera altua	1	Ortuan ongarrizatzeko erabili den N kopurua araudiak baimentzen duena baino altuago izan	Inskripzioa mantentzea
Ez onarturtako intsumoen biltegitratzea	1	Ekoizpen erregistroak ez ditu eguneratuta.	Inskribatzea ukatzea
Animaliak bazka laboreen sarbiderik gabe	2	Arrautzetarako oiloak bazka ez dute oilotokian	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Animaliak larreen sarbiderik gabe	2	Arrautzetarako oiloak ez dira parketara atera	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Animaliak identifikaziorik gabe daude	1	Zaldiak ez daude identifikatuak	Ziurtagiria berriztatu

Araudiaren gaia	Espediente kopurua (*)	Ezadostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Erregistroak ez daude	1	Auditoretzan erregistroak ez dira aurkezten	Neurri zuzentzaile egokia. Ziurtagiria berriztatu
Hainbat terrenoetan metal astunen kutsadura	1	Kutsatutako lurak bajaran ematen dira	Ziurtagiria berriztatu
ekoizpena ez da zaindu behar bezala	3	Terrenoetan ontzien edo plastikoaren arrastoak ikusten dira.	Ziurtagiria berriztatu
Etiketatu gaizki dago	4	3 kasuetan etiketak gaizki daudela ikusten da. 1ean salmenta dokumentua ez da zuzena.	Ziurtagiria berriztatu
Informazioaren sarbiderik gabe	1	Bisitan ez dira aurkezten behar diren dokumentuak	Ziurtagiria berriztatu
Animali ez ekologikoak ustiatzean sartu	1	Zaldi ustiatzean araudiak zehazten duen baino animali ez ekologiko gehiago sartu dira	Inskripzioa mantentzea eta ez ematea ziurtagiria egoera konpondu arte
Ustiatze mistoen kasuetan, mahats bilketaren hasierko abisua ez eman	9	Nahiz eta Kontseilutik gogoratu, 9 kasuetan ez dute jakinarazi bilketaren	Ziurtagiria berriztatu
Hiltegi batean ez dute hilketaren abisurik eman	1	Egindako hilketetan ez dute abisurik eman	Neurri zuzentzaileak egokiak Ziurtagiria berriztatu
Ukuiluaren baldintzak ez dira egokiak	1	Animaliak ez dira ziurtatzen baldintza bete arte	Inskripzioa mantendu
Animalien eklikaduraren baldintzak ez dira betetzen	1	Gaixotasun batengatik arrautzetarako oiloen ratioa baxua izan da	Neurri zuzentzaileak egokiak Ziurtagiria berriztatu
Landare ez ekologikoen erabilera	1	Bisitan ezin da egiaztatu hainbat udaberriko landaketen jatorria	Kaltetutako laboreak deskalifikatu eta ziurtagiria berriztatu
Ez onartutako ongarri baten erabilera	1	Etixerako diren frutarbol batzuetan ongarri minerala erabili da	Deskalifikatu horren uzta eta ziurtagiria berriztatu

<b>Araudiaren gaia</b>	<b>Espediente kopurua (*)</b>	<b>Ezardostasunen nondik norakoa</b>	<b>Ebazpena</b>
Bazka ez ekologikoaren erabilera	1	Eguraldia dela eta bedarrik gabe gelditu dira	3 hilabeteko suspentsioa eman. Gero ziurtagiria berriztatu.
Inskribatu gabeko instalazioen erabilera	1	Sagar zukua inskribatu barik dagoen zentro batean egin da	Neurri zuzentzaileak egokiak Ziurtagiria berriztatu
Onartu gabeko tratamendua duen haziaren erabilera	2	Hazi ez ekologikoak, onartu gabeko tratamenduekin erabili dira.	Ziurtagiria berriztatu. Baten kasuan uzta deskalifikatu.